

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar taldeko bozeramaile Aintzane Ezenarro Egurbidek, indarrean den Erregelamenduaren babesean, “guztientzako Memoriaren eguna egiteari buruz” **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du, **osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin**:

ZIOA

Joan zen azaroaren 10ean Memoria egunaren lehen edizioa egin zen Euskal Autonomia Erkidegoan, eta egun hori hurrengo urteetarako ere Biktimen Memoria eguna izatea ezarri da Eusko Jaurlaritza eta talde politiko batzuen eskutik. Kontua hartuta biktima guztiak ez zituela aintzat hartzen egun horretan irakurri zen adierazpenak.

Hori dela eta aurkezten dugu hurrengo legez besteko proposamena, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak dei egiten die EAEko erakunde publiko guztiei, Biktimen Memoriaren egunean, azken hamarkadetako indarkeriaren biktima izan diren guzti guztiak barne hartuko dituen ekitaldiak burutzera, inolako bazterketarik egin gabe.

Gasteiz, 2010eko azaroaren 22an

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar taldeko bozeramailea